

600.000 sinaduren Agiria Europako Parlamentuan aurkeztua izango da

## Euskara Europaren onarpen ofizilaren bila

**BATEGINIK kanpainen zehar egiten ari den sinadura bilketa dela eta, zenbait galdera egiten du Paulo Agirrebaltzategik honako artikuluan: 'zer nolako harrera izango dute 600.000 sinadura horiek Europako Parlamentuan? Eta zein ondorio eduki dezake Agiria han aurkezteak? Ekintza simboliko hutsa izango ote da? Ala edukiko al du eragin moral, politiko nahiz juridikorik?' Erantzunak ondorengo lerrootan aurki daitezke.**

BATEGINIK Kanpainen «Euskara Hizkuntza Nazionala» agiriaren alde bilduko diren 600.000 sinadura aurrenik Europako Parlamentura joango dira. Euskal Herriko Udalen eta bestelako erakunde ofizialen onespenerekin.

Agiriko bigarren eskabidea Europako Elkarteko erakundeei dago, hain zuzen ere, zuzenduta: honela dio: «Europako Elkarteko erakundeei: a) euskara ofizialki onar dezatela ondorio guztietarako, eta b) bere estatu partaideak premia ditzatela estatu baten babesa ez daukaten hizkuntza minorizatuak, eta bereziki euskarak, onarpen osoa eta berdina eta, era berean, babesa izan dezaten historikoki kokatutako geografi esparruan».

Hala ere, guzti honetan zuzen aritzeko, aurretik ezagutu beharra dago, Europako Elkarteko Erakundearen jokatzea eta «araubidea» bertako hizkuntza gutxituei buruz.

### Gaetano Arfé-ren Ebazpena eta HIZGABE

Ezaguna da Europako Parlamentuak ez duela legerik ematen. «Ebazpenak» (=resolutions) bakarrik ematen ditu; horiek ez dute ez Komisioarentzat ezta Europako Elkartean dauden estatu bakoitzarentzat inolako legezko loturarik. «Gomendioak» (=recommendations), eskabideak, inbitazioak, besterik ez dira. Estatu bakoitzeko gobernuak aske da ebazpen horien arabera jokatu ala ez. Indar morala besterik ez dute, beraz.

Gaetano Arfé italiar parlamentariak ipini zituen lehen aldiz Europako Parlamentuan hizkuntza eta kultura gutxituen arazoak. 1981ean onartu zuen Parlamentuak horien aldeko lehen ebazpena. Eta ondorioz «European Bureau for Lesser Used Languages» sortu zuten, Parlamentuaren eta Komisioaren politikaren tresna gisa. Horren hel-

buru orokorra honela zegoen definituta: «Elkarte Europarretako estatuetako Herri-hizkuntza gutxiak eta horiei dagozkien kulturak zaintzea eta sustatzea da Bulegoaren helburu orokorra».

Estatu espainola Europako Elkartean sartu zenean, Euskaldunek, Katalanek eta Galiziarrek «Bureau» delakoaren ordezkartza estatala sortu zuten: «Agencia Europea para las Lenguas Minorizadas en el Estado Español». Hiru batzorde ditu horrek oraingoz: euskalduna, katalana, eta galiziarra. Euskal Herriko batzordeari HIZGABE (Hizkuntza gutxituen aldeko bulego europarra) deritza.

Estatalista da bulegoaren erakuntza horregatik Ipar Euskal Herrikoak Frantziako «Bureau»an daude sarturik, eta Hegoaldekoak Estatu Espainoleko «Agencia»n. Lehen asmoetako bat, HIZGABEren aldetik, erakuntza hori nolabait haustea da, hain zuzen ere.

Nazioarteko (estatuarteko) Bureauaren ihardunbidea lau ardatz hauetatik dabil: 1. Erakundeko kide diren Herrietara beste Herrietako lagunen bisitak antolatzea; 2. Bureauan sarturik dauden erakunde edo elkar-teek asmotan dituzten halako lan eta ikerketa zehatzak diruz laguntzea; 3. Europako Hizkuntza gutxituen Buletina argitaratzea, «Contact Bulletin» izenkoa; 4. Hizkuntza gutxituek dituzten hainbat arazori buruzko nazioarteko topaketak eta batzarreak antolatzea.

Bureau-a edo HIZGABE Europako Parlamentutik eta Komisiotik dago, fi-

nantzapenaren aldetik. Dublinen du bere bulego nagusia, oraingoz; baina laster Buresela-ra aldatzekoa da. Dena dela, Bureau-a autonomia da bere ihardueran. Azken bi urteotan Europako Parlamentuaren aurrekontuetan bere "ligne" edo partida berezia galduta du. 1987ko Bureau-aren aurrekontua 206.400 ECU edo 28 bat milioi pezetakoa izan zen soilik.

## Kuijpers Ebazpena

Willy Kuijpers politikari flamandarra da, Europako parlamentaria. Beraren izeneko da 1987ko urriaren 30ean Parlamentuak onartu zuen ebazpena. Horren titulua da «*Europako Elkarteko gutxiengo etniko eta erregionaletako hizkuntza eta kulturei buruzko Ebazpena*».

Arfé izeneko Ebazpenaren jarraipena izan nahi du oraingo honek; bestalde, azken urteotan Europako Parlamentura aurkezturiko hainbat Ebazpen-proposamen haritik dator.

Bost alorretako neurriak proposatzen ditu Kuijpers Ebazpenak: Irakaskuntza-koak, Administrazio publikoko eta Jus-

tiziaren administrazio-koak, Komunikabide sozialetakoak, hizkuntza gutxituetako Kultur azpiegiturakoak eta barruti sozio-ekonomikoak. Bi azken alor hauetako proposamenak aski garrantziko eta interesgarriak iruditzen zaizkit, kontutan edukirik Administrazio publikoek sarritan ez dituztela aintzatzat hartzen.

Printzipio-mailako puntu interesgarria ipintzen du Ebazpenak, 2. zenbakian: «*Ezinbestekoa da Elkarteko estatu partaideek beren hizkuntzazko gutxiengoak halakotzat ezagutzea bereiraen marko juridikoaren barruan, horrela gutxiengo etniko eta erregionalen kulturen eta hizkuntzen bizitzarako eta garapenerako baldintzak sortuz*».

Irakaskuntzari dagokionez, ez da aipatzen gobernuen eginkizuntzat hizkuntza gutxituetan irakaskuntza eratzeari; hala ere, estatuak gomendatzen ditu Ebazpenak, ekimen pribatuz hizkuntza gutxituetan sortu eta eraturiko ikastaro eta eskolei ofizialtasuna emateko. Puntu hau interesgarria gertatzen da Iparraldeko ikastolentzat bereziki. Era berean, Euskal Herria bezala, bi estatutan zatiturik dauden Herrietako hizkuntz diploma, agiri eta tituluak, alde batean emandakoak, bestean ere aintzatzotzat ezagutzea eskatzen du Ebazpenak. Puntu hau ere, egoki betetzera, interesgarria gerta daiteke gure He-

goaldearen eta Iparraldearen harremanetarako.

Hizkuntza gutxituetako sorkuntza kulturalari dagokionez, hizkuntza horietako taldeei zuzeneko partaidetza eman beharra nabarmentzen du Ebazpenak.

Euskal Herriaren egoerari begira, agian baliagarriagoak dira alor sozio-ekonomikoari eta espezifikoki bi estatutan zatituriko Herrietan eratu beharreko kulturazko eta hizkuntzazko harremani buruz esaten dituenak, era oso neurtu eta mugatuz adierazita baldin badaude ere. Enpresa publikoetan (postan, garraioetan, etab.) eta transakzio finantzarioetan (txeketan eta beste-lako finantz eragiketetan) hizkuntza minorizatuak erabiltzeko neurriak hartzea gomendatzen die estatuei.

## 600.000 sinaduren indar moral eta politikoa

Aspalditxo eskatzen ari garena, Hegoaldearen eta Iparraldearen arteko kulturazko eta hizkuntzazko harremanak eratzeari eta ofizialtzeari, aski oinarrituta eta esplizitatuta gelditzen da Kuijpers izeneko Ebazpen honetan.

Dokumentu honen edukinezko eta formazko ahultasun eta guzti, baditu proposamen interesgarriak ere, Europako hizkuntza gutxiengoaren egoera orokorrari begiraturaz gero, eta baita euskararen egoerari begiraturik ere. Dena dela, eta goian aipatu dugun hizkuntza gutxituen printzipiozko onarpena zerbait baldin bada ere, Ebazpen honen ondoren ere eta horren planteamendu osoan «*Europako Elkarteko gutxiengo etniko eta erregionaletako hizkuntza eta kulturei*» bigarren (edo hirugarren) mailan jarraitzen dute, beren «*gutxitasunean*».

Printzipio eta ikuspegi horren barruan horiekiko politika hobetzea, neurri egokiagoak hartzea eta laguntza handiagoa ematea eskatzen du Ebazpenak. Bide horretatik, esate baterako, goian aipaturiko Bureau edo HIZGABE indartzea eskatzen du, horrenj aurrekontua ere handituz (1988rako milioi bat ECU-tara igotzea eskatzen bait du).

Hori bai; baina aurrerako urrats koalitiborik ez du ematen, hizkuntza eta kultura gutxituen aldeko politikan. Euskarari dagokionez, hori Euskal Herriko hizkuntza nazionaltzat ezagutzea eta horren arabera European ere onarpen ofiziala ematea litzateke printzipiozko urrats berria, aurrerapen koalitiboa.

Horretara dator, hain zuzen, BATEGINIK Kanpainan sinatuko eta Europako Parlamentura ere aurkeztuko den Agiria. 600.000 sinaduren indar morala eta politikoa handia da.

PAULO AGIRREBALTZATEGI



**Europako Elkarteko gutxiengo etniko eta erregionaletako hizkuntza eta kulturei bigarren mailan jarraitzen dute.**